

(8) Funtsezko jarduerak:

Behar bezala egin behar ditugun ekintzak definitzeko unea iritsi da; izan ere, ekintza horiek gabe gure negozioak porrot egin dezake edo gaizki funtziona dezake. Beharrezkoa da gure funtsezko jarduerak xehetasunez menderatzea. Guztiek jabetu behar dute enpresaren lan garrantzitsuenez.

Badakigu funtsezko jardueretan huts egiten duten enpresek arazo operatibo, salmenta baxua eta arazo asko izaten dituztela beren helburuak epe laburrean, ertainean eta luzean betetzeko.

Up to Date konpromisoa hartzen du gure app-eko erabiltzailearen batek arazoren bat izango balu, honi laguntzeko eta konponbideak azkar bilatzeko. Arazoa larriagoa izanez gero, *Up to date* enpresak ez ditu erabiltzaileak inoiz app-a erabili gabe utziko.

Funtsezko baliabideak bezala, funtsezko jarduerak ezinbestekoak dira balio-proposamen arrakastatsua sortzeko, bezeroekin harreman ona izateko eta konpainiaren diru-sarrerak hobetzeko. Horregatik, honela banatu ditugu:

Azpiegitura:

- Lokalaren kokaleku estrategikoa erabakitzea:

Enpresarentzat garrantzitsua da lokal egokia aukeratzea, bai klaseak emateko, bai gehiegizko gastua ez eragiteko. Hemen, langileak nahi dutenean eta beharrezkoa denean bere lana loklaren barruan errazago egingo dute lana bere etxean baino, nahi badute.

- Lokala produktiboa izan dadin ekipatzea:

Gure enpresak ez du lokal handirik behar lan egiteko. Leku egokia izan behar du lan egiteko eta naturaltasunez grabatzeko. Izan ere, langileak normalean ez lirakeke lokalera joango (grabazio gehienak etxean edo haiek aukeratzen duten lekuan egingo lukete). Gainera, ez du leku ezagun batean egon behar, langileak bakarrik joan ahal izango baitira hara. Bestalde, lokala prestatuta egongo da beti, grabatzeko, zuzenekoak egiteko, eta beste hainbat gauza egiteko.



Giza baliabideak:

- Irakasle kualifikatuak kontratatzea.
(Bi irakasle irakasgai bakoitzeko fisika era kimikan izan ezik, hau da, irakasleak bien artean izango dute lana banatuta).
- Web orria eta aplikazioa sortzeko eta mantentzeko langileak kontratatzea. Gure enpresan arazo bat balego langile hauek arduratuko lirateke. Horrela bezeroen arazoa oso azkar konponduko da.

Teknologia:

- Bezeroaren harpidetza- eta fakturazio-sistema ezin hobea eskaintzea:

Erabiltzaileek banku transferentziekin arazoak badituzte, enpresaren izen onari kalte egingen zaio, eragiketak ez dira seguruak izanen eta erabiltzaileak ez daude gustura. Ordaintzeko beste modu bat bizuma da, arazoak izanda modu honetan erabil daitekeena. Izan ere, ia gazte guztiek erabiltzen dute, eta gero eta jende gehiagok ere bai.



Erosketak:

- Bulegorako materialak erostea.
- Esate baterako, ordenagailuak, portatilak, ... , irakasgai bakoitzeko irakasle bakoitzak ere material desberdina beharko du; adibidez, matematikako irakasleak kalkulagailu bat, erregrala bat... beharko du. Material hau lokalean egongo da, horrela langileen lana errazago izango da.



Bestelako eginkizunak:

- Eraginkor eta egoki eskaini.
- Bideo bakoitza zehatz-mehatz zaintzea.
- Publizitatea eta sustapenak egitea. Horrela, pertsona gehiagorengana iritsiko da eta, horrela, pertsona gehiagok erabili ahal izango dute app.
-
- Bezeroaren gogobetetze-inkestak egitea. Honen bidez, eskainitako zerbitzuak hobetuko lirateke, beharrianak dektetatuko genituzke.
- Konexio hoberenak eskainiko diogu, hau, garrantzia handikoa da. Horrela irakasleek azkarrago egingo dute lana problema barik.